

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Aurretik zehaztu dugun bezala, Sustraiak negozio idea hiru zerbitzu desberdin eskainiko ditu, non bakoitza bezero jakin batzuei zuzenduta egongo den. Bide desberdinak izan arren, **xedea** berdina da, **bezeroa eta haren ingurunearen eguneroko bizi-erazte eta ongizate psikologikoa bermatzea; baita beraien familia ere**. Gure zerbitzuak erabiltzen dituzten artean, bi talde nagusi bereizten dira.



Alde batetik, memoria arazoak haien egunerokoan dituzten pertsonak, bai gaixoak bai beraien senideak daude. Izan ere, *gaur egun, [800.000 inguruk dute Alzheimerra Espainian urtero, 40.000 Alzheimer kasu berri diagnostikatuz](#)*. Gure zerbitzu guztiak bezero hauentzat bideratuta daude gehienbat. Talde honetan daudenak, ondorengo ezaugarri komunak izaten dituzte:

- Memoria arazoak dituzte
- Kudeaketa edo informazio falta memoria arazoaren aurrean.
- Terapia beharra.
- Haien egunerokoa errazteko beharra.
- Gune eta sare babestuak sortu nahi dituzten pertsonak
- Oroitzapenekin memoria landu nahi dituztenak.
- Familiek gaixotasunaren aurrean dituzten kezkak argitu nahi dituztenak.



Baina beste enpresekin egingo ditugun aliantzak direla eta (aurrerago komentatuko duguna), beste elkarteetatik datozen bezeroak ere izango genituzte, gehien bat ingurutik gertu ditugunak [afa-bizkaia](#), [afa-gipuzkoa](#), [afa-araba](#)... Bezero hauek lehen aipatu ditugun ezaugarri berdinak izango dituzte.

Bestalde, gure xede-nagusia, memoriarekin arazoak dituzten pertsonen eta haien familiei zuzenduta dagoen arren, helburu desberdin batekin gure zerbitzu nagusia, hau da, **Gu-Geu** zerbitzua jasotzera datozen bezeroentzako ere zuzenduta dago. Modu honetan, gure merkaturak zabalduko dugu eta nahi dutenei eskuragarri uzten. Segmentu honetan ezaugarri hauek dituzten bezeroak izango ditugu:

- Bere memorien erregistro bat egin nahi duten pertsonak.
- *Gu-Geu* opari gisa norbaiti egin nahi diotenak.

- *Gu-Geu* zerbitzuaren kostua altua izan daiteke, kapritxo hau nahi duenak ordaindu behar izango du. Hala ere, gaixotasuna pairatzen dutenentzat diru laguntzak eskainiko dira.

Gauzak horrela, gure merkatua horrela definituko genuke:

<p><b>Ekintzak eta terapiak jasoko dituzten bezeroak:</b></p> 	<p><b>Segmentatutako merkatuan</b> oinarritutakoa izango da, izan ere, memoria arazoak edo memoria desgaitasun konkretua pairatzen ari diren pertsonak eta inguruan dituzten senideen beharrianak asetuko ditugulako.</p>
<p><b><i>Gu-geu</i> ondasuna jasoko duten bezeroak:</b></p> 	<p><i>Gu-Geu-a</i>, (oroitzapenen bilduma) aldiz, <b>merkatu masiboan</b> kokatuta egongo da. Edonork erosi dezakeelako. Haien artean ezaugarri ezberdinak dituzte, baina denek helburu berdinarekin egiten dute, kasu honetan, oroitzapenak albumean biltzeko helburuarekin.</p>